# ESKUBIDE SOZIALEN DEFENTSAN APIRILAK 1 MANIFESTAZIOA BILBON

Bermatutako gutxieneko diru-sarrerak izatea borroka sozialaren, jendartearen mobilizazioaren fruitu da. Baina azken urteetako mozketa oldeak gizarte-prestazioei ere eragin die. Herritarren eskubideak murriztu dira, batik bat egungo krisi ekonomikoak gehien zigortu dituen kolektiboenak: langabeak, enplegu prekarioa dutenak, dependentzia egoeran daudenak eta gutxieneko pentsioak jasotzen dituztenak. Emakumeen eskubideei bereziki eraso diete. Hona hemen datu batzuk:

• Prestazio sozialak jaso ahal izateko eskakizunak zorroztu egin dituzte; adibidez, DBE eskatu ahal izateko erroldatuta urtebete egon ordez orain hiru urte eskatzen dira.
• Prestazioen zenbatekoa %7 moztu dute (eta hau 2017an ere mantendu nahi dute).
• Lanbidek irizpide murriztaileak aplikatu ditu, eta sarri behartsuenen eskubideak urratu ditu.

Politika antisozial hauekin batera areagotu egin diraprestazio sozialak jasotzen dituen jendea kriminalizatzeko kanpainak. Eskubide beharko lukeena ustezko delitu gisa aurkezten da. Aski dela esateko eta gertatzen ari dena salatzeko unea da.

Murrizte politikak zuritzeko argudio faltsuak baliatzen dituzte: esaterako, “ezin dugu DBE gehitu lan merkaturatzeko joera geldiaraziko lukeelako”. Lanbideren datuen arabera, DBE jasotzen duten bizikidetza-unitateen %20ak -12.480- enplegu prekarioa dute, eta laguntzarekin osatzen dute beren soldata kaskarra; prestazioen %25 -15.804 bizikidetza-unitate- pobrezia mailako pentsioak osatzeko dira; beste %20, berriz, langabezia-subsidio urriak osatzeko dira, egungo prekaritate egoeraren ondorioz.

Horrenbestez, Eusko Jaurlaritzak 2017ko aurrekontu-proiektua aurkeztu du. Bertan islatzen da bere borondatea: murrizketei eutsiko die eta prestazio sozialei ez die aplikatuko Gutxieneko Soldataren igoera. Horren ordez, DBEaren igoera %1,5era mugatzeko asmoa du.

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karta ehundik gora organizazio ezberdinek osatzen dute (sindikatuak, mugimendu feministakoak, gazte-mugimendukoak, ekologistak, pentsiodunen elkarteak, jendarte-bazterketaren aurkako plataformak, Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarekoak...), eta hau da bere aldarria:

1.-Babes sozialeko euskal sistema integrala, duin eta kalitatezkoa nahi du, zeinaren helburua bizitza sostengatzeko gauza izango den jendarte-eredu bat den.

2.-Salatu egiten du Eusko Jaurlaritza ezartzen ari den politika antisozialek biztanleria oro har pobretu egiten dutela. Aberastasunaren banaketa gero eta bidegabeagoa da. Areagotzen ari dira langabezia, prekaritatea, pobrezia eta

ezberdintasun ekonomiko eta sozialak, ez baita egiten egoerari aurre egiteko politika publikorik, hots, ez dira pertsonen beharrizanak lehenesten.

3.-Diru-Sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko 2008ko Legeak berariaz aipatzen du DBE eta Lanbidearteko Gutxieneko Soldataren (LGS) arteko lotura. LGSak erosahalmena galdu duenean Eusko Jaurlaritzak ez du esan DBEa gehitu behar zenik; aitzitik, egoera dirua aurrezteko baliatu du.

4.-Kontutan izanik aurten LGS %8 igo dela, portzentaje hau era automatikoan aplikatu beharko litzaieke DBEari eta Lanbidek kudeatzen dituen beste prestazioei ere.

5.-2008ko legea ez aplikatzeak batik bat kolektibo ahulenenen eskubideei eraso egiten die: soldata eta pentsio kaskarrak dituen jendea, etxegabetzeen kaltedunak, pobrezian bizi direnak, etab. Horrela taxutzen den ereduaren iparra ez da bizitza, eta zaintzeko lanak emakumeen esku uzten dira. DBE jasotzen duten bizikidetza-unitateen artean gehiengoa emakumeak dira, besteak beste guraso bakarreko milaka familia.

Aurrekontu proiektu hau dela eta, dei egiten diegu alderdi politikoei Legebiltzarrean honako aldaketak sar ditzaten:

- DBEri eta Lanbidek kudeatzen dituen beste prestazioei aplika diezaietela LGSak izan duen %8 igoera bera.

- Indargabetu dezatela prestazio sozialen zenbatekoan %7ko murrizketa ezartzen duen xedapen gehigarria.

Halaber, dei egiten diegu herritarrei Bilbon datorren apirilaren 1ean izango den manfiestazioan parte har dezaten; agerraldia arratsaldeko 5.30ean hasiko da Jesusen Bihotzeko plazatik. Hauek izango dira gure aldarriak:

BABES SOZIALEKO EUSKAL SISTEMA INTEGRALA, DUIN ETA KALITATEZKOAREN ALDE

2008KO LEGEA BETETZEAREN ALDE

%8KO IGOERA ETA MURRIZKETAK BERTAN BEHERA UZTEA, ORAIN

HEMEN LAN ETA BIZI, HEMEN ERABAKI

Bilbon, 2017ko martxoaren 3an

# EN DEFENSA DE LOS DERECHOS SOCIALES
# 1 DE ABRIL MANIFESTACIÓN EN BILBAO

La existencia de unos ingresos mínimos garantizados es fruto de la lucha social, fruto de la movilización de la sociedad. Pero la ola de recortes de los últimos años también ha afectado a las prestaciones sociales. Se han recortado los derechos de la ciudadanía, afectando a los colectivos más castigados por la actual crisis económica: personas desempleadas, con empleos precarios, personas dependientes y perceptoras de pensiones mínimas. Vulnerando especialmente los derechos de las mujeres. Así:

- Se han endurecido los requisitos para acceder a las prestaciones sociales, como por ejemplo pasando de uno a tres años de empadronamiento para poder solicitar la RGI.
- Se ha recortado la cuantía de las prestaciones en un 7% (recorte que se pretende mantener para 2017).
- Lanbide ha aplicado criterios restrictivos, vulnerando en muchas ocasiones los derechos de las personas más necesitadas.

A la vez que se han venido aplicando estas políticas antisociales, han arreciado las campañas de criminalización de las personas perceptoras de prestaciones sociales. Lo que debería ser un derecho se presenta frecuentemente más como un presunto delito que otra cosa. Es hora de decir basta y de denunciar lo que está pasando.

Para justificar estas políticas restrictivas se utilizan falsos argumentos, como el de que "no podemos subir la RGI porque desincentivaría el acceso al mercado laboral”. Según datos de Lanbide el 20% de las unidades de convivencia que perciben la RGI -12.480- tienen un empleo precario y complementan su mísero salario con dicha RGI; o el 25% de las prestaciones -que suponen 15.804 unidades de convivencia- son destinadas a complementar pensiones de pobreza; otro 20% completan subsidios de desempleo de escasa cuantía, producto de la actual situación de precariedad.

En este contexto, el Gobierno Vasco ha presentado su proyecto de presupuestos para 2017. En él recoge su voluntad de mantener los recortes y de no aplicar la subida del Salario Mínimo a las prestaciones sociales. En lugar de ello plantea que el incremento de la RGI se limite al 1,5%.

La Carta de Derechos Sociales de Euskal Herria, compuesta por más de 100 organizaciones diversas (sindicales, del espacio feminista, del movimiento juvenil, del ecologismo, de pensionistas, plataformas contra la exclusión social, de la Red de Economía Alternativa y Solidaria...):

- Defiende un sistema vasco de protección social integral, digno y de calidad, que vaya en la dirección de un modelo de sociedad que ponga en el centro el sostenimiento de la vida.

- Denuncia que las políticas antisociales que el Gobierno Vasco viene aplicando están dando lugar a un empobrecimiento generalizado de la población. La distribución de la riqueza es cada vez más injusta. Aumentan el paro, la precariedad, la pobreza y las desigualdades económicas y sociales, porque no se hacen políticas públicas para dar vuelta a la situación, priorizando las necesidades de las personas.

- Recuerda que la Ley de 2008 para la Garantía de Ingresos y la Inclusión Social recoge expresamente la relación entre RGI y SMI. Cuando el SMI ha perdido poder

adquisitivo el Gobierno Vasco no han dicho que había que subir más la RGI, sino que lo ha aprovechado para ahorrar dinero.

- Teniendo en cuenta que este año el SMI se ha incrementado en un 8%, debería aplicarse automáticamente esta subida a la RGI y al resto de prestaciones gestionadas por Lanbide.

- No aplicar la ley aprobada en 2008 supone atacar especialmente los derechos de los colectivos afectados por bajos salarios, pensiones míseras, desahucios, pobreza, etc. Supone incidir en un modelo que no pone en el centro la vida, y que hace descansar las tareas de cuidado en las mujeres. Entre las familias perceptoras de la RGI son mayoría las mujeres, entre las que se encuentras miles de familias monoparentales.

Ante este proyecto de presupuestos hacemos un llamamiento a los partidos políticos a que en el trámite parlamentario se produzcan los siguientes cambios:

- Que se aplique a la RGI y al resto de prestaciones gestionadas por Lanbide el incremento del 8% que ha tenido lugar en el SMI.
- Que se deje sin efecto la disposición adicional que establece el recorte del 7% en la cuantía de las prestaciones sociales.

Asimismo, hacemos un llamamiento a la ciudadanía a participar en la manifestación que tendrá lugar en Bilbao el 1 de abril, que partirá a las 17:30 de la Plaza Sagrado Corazón, en la que vamos a exigir estas reivindicaciones.

POR UN SISTEMA VASCO DE PROTECCIÓN SOCIAL INTEGRAL, DIGNO Y DE CALIDAD

POR EL CUMPLIMIENTO DE LA LEY APROBADA EN 2008

SUBIDA DEL 8% Y DEROGACIÓN DE LOS RECORTES YA

AQUÍ VIVIMOS, AQUÍ TRABAJAMOS, AQUÍ DECIDIMOS